

OINARRIZKO MAILA 1

GAITASUN BAKOITZA EBALUATZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

IRAKURMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Informazio testu sinple eta laburren eta deskribapen sinpleen ideia orokorra ulertzeko, batik bat, irudiak badituzte testuak ulertzen laguntzeko.
- Testu oso laburrak eta sinpleak ulertzeko, hitz ezagunez eta oinarrizko esapideez lagunduta, eta beharrezkoa badu, testuaren zati batzuk berriro irakurrita.
- Jarraibide idatzi labur eta sinpleak ulertzeko eta jarraitzeko; batik bat, irudiak badituzte horiek ulertzen laguntzeko.
- Eguneroko egoerei buruzko testuren batean (esaterako, iragarki batean) azaltzen diren hitzak eta esapideak ulertzeko.
- Mezu labur eta sinpleak ulertzeko; esaterako, postal batekoak edo mezu elektronikokoak.

ENTZUMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Eguneroko premiei buruzko ohiko esapideak ulertzeko; betiere, esapideok poliki, argi eta behin baino gehiagotan esaten badira.
- Poliki adierazitako, behar bezala antolatutako eta etenaldi ugariako diskurtso bat ulertzeko.
- Galderak eta oharak ulertzeko eta jarraibide labur eta errazei jarraitzeko.
- Zenbakien, prezioen eta orduen adierazpena ulertzeko.

IDAZMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Esaldi eta esapide sinple eta isolatuak idazteko.
- Eguneroko egoerei buruzko ohar sinpleak idazteko.
- Postal edo mezu elektronikoko sinple eta laburrak idazteko.
- Formularioak datu pertsonalez betetzeko.
- Norberaren bizilekua deskribatzeko.

MINTZAMENA

Ikasleak maila honi dagozkion trebetasunak bereganatu dituela ulertuko da, baldin eta gai bada:

- Bere burua aurkezteko eta pertsoneri eta lekuei buruzko esaldi sinple eta isolatuen bidez ideiak adierazteko.
- Norberaren eta gertuko inguruaren (lana, familia edo bizilekua) deskribapenak egiteko.
- Elkarrizketatan parte hartzeko, baldin eta aukera badu esandakoa astiro errepikatzeko, berriro adierazteko edo zuzenketak egiteko.

Eguneroko gaii buruzko galdera errazak egiteko eta ildo horretako galderari erantzuteko.